



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN MANIFESTUA, ADINEKOEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Gaur, 2015eko urriaren 1ean, Adinekoen Nazioarteko Eguna denean, publikoki adierazi gura dugu Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa duela Bizkaia adin guztientzako **lurralde adiskidetsu** bihurtuko duen strategiaren lider izateko. Eta estrategia horretan beste erakunde, eragile publiko eta pribatu batzuk ere sartuko dira, oro har, eta adinekoen elkarteen mugimendua, bereziki.

Horrenbestez, hau da hartzen dugun konpromisoa:

- Adinekoek gizartean parte-hartze aktiboa izan dezatela bermatzea.
- Adinekoen ahalduntze handiagoa erraztea, garatu ahal dezaten bai beren bizi-proiektua, bai Bizkaiko gizarteari egiten dioten ekarpena.
- Esparru egituratua mantentzea adinekoekin hitz egiteko, parte har dezaten haiei eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan, adinekoentzat diren politikak haiekin batera eraiki ditzagun.
- Adinekoekin lotutako estereotipo negatiboak apurtu daitezela sustatzea.
- Belaunaldien arteko ikuspegia eranstea politika nahiz programetan, baita belaunaldien arteko harremanak erraztuko dituzten programa berriak sustatzea ere.
- Zahartze aktiboaren kontzeptua gizarte osora zabaltzea eta kontzeptua bera uler dadila bultzatzea.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

- Biztanleen zahartzea aukera bihurtzea gure lurraldearentzat, hori baita testuingururik egokiena sektore soziosanitariora bideratutako industria bultzatzeko gurean, enplegua zein balio erantsi handiko jarduera ekonomikoa sortzeko nitxo gisa.

Bada, manifestu honekin Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du aurrerapausoak ematen jarraitzeko Bizkaia lurralde adiskidetsua izan dadin pertsona guztientzat, adin guztietako pertsonentzat.

2015eko urriaren 1a